

## Donostian, 2004.eko apirilaren 30ean

### Batzar-agiria

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,  
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,  
Andres Urrutia, Jagon sailburua,  
Patxi Altuna,  
Jean Louis Davant,  
Patxi Goenaga,  
Andres Iñigo,  
Emile Larre,  
Jose Luis Lizundia,  
Patxi Ondarra,  
Pello Salaburu,  
Ibon Sarasola  
eta Piarres Xarriton euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, eta Mikel Gorrotxategi zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Miren Azkarate, ahala P. Salabururi; Txomin Peillen.

Batzarra goizeko 10,15ean hasi da Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregiko Elkano aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

#### 1. Akta onartzea.

Martxoko batzarraren akta, A. Iñigoren bi oharrekin, onartu egin da.

#### 2. Hizkuntza arauak.

**2.1. Onomastika: Gipuzkoako herri izendegia (1. zerrenda) Donostia-Betleri eta Oiartzualdea aurkeztea.** Onomastika batzordeak Iparraldeko udalen zerrenda behin amaitu eta gero, aurrerantzean Hegoaldeko udalen zerrenda berrikusteari ekingo diola iragarri du A. Iñigok. Oraingoan Gipuzkoako lehen zerrenda hau aurkeztu eta, hor izandako aldaketak eta horien arrazoi eta iturriak azaldu ditu.

J.L. Lizundiak ere herri-izen batzuei buruzko azalpenak eman ditu. X. Kintanak galdetu du ea Donostia-San Sebastián moduko bikoteek ez ote duten deklinatzeko orduan arazorik sortuko.

A. Iñigok eta J.L. Lizundiak erantzun diote, herri-izen horiek euskaraz mintzatzeko euskal forma hutsez lihoazkeela azalduz. Edonola ere, Onomastika batzordeak kontu honetaz argitasun-txosten bat aurkezteko asmoa duela esan du A. Iñigok.

**2.1.1. Hiztegi Batuaren 2. itzulirako Onomastika batzordearen proposamena.** Andres Iñigok esandako proposamena aurkeztu eta irakurri du, onomastikarekin zerkusua duten izenen trataerari buruz.

B. Oihartzabalek galdetu du ea zer gertatuko den iparraldeko herri izen batzuekin, osagarri bat baino gehiago daramatenean. A. Iñigok eta J.L. Lizundiak azalpenak eman dizkiote.

P. Goenagak arau orokorra nahi luke auzo eta udalik gabeko gentilizioetarako, bai eta nazioartekoetarako ere. J. Haritschelharrek esan duenez, gentilizioetan askotariko tradizioa dela eta, Euskal Herriko izenei dagokienean, malguak izan behar genukeela. P. Salaburuk gogoratu du badirela Nafarroan herri asko, handi xamarrek, udalik gabeak izanik ere, eta horiek eta bertako herritarren izenak aipatzea mereziko lukeela. M. Gorrotxategik ez dakusa posible Euskal Herriko izenatarako irizpide bakarra azaltzea, eta gaztelaniazko etsenplu bat jarri du: *Palencia/Valencia*-ren bikotearena; bataren eratorria, *palentino* den bitartean bestearena *valenciano* baita. Halere, hori posiblea da kanpoko estatu gabeko herrien izenatarako (*palestinar, txetxeniar...*).

J.L. Lizundiak, P. Salabururi erantzunez, garrantzi handiko herri horien izenak kontuan hartuko direla esan du.

**2.2.1. Hiztegi Batua.** *axuleiu/azulejo* artean erabakia hartzea. Eztabaida luzearen ondoren **azuleju** Heg. forma hobetsi da.

**2.2.2.** *azalki-azuzena* zerrendako hitzak aztertu dira *azi-orraziz*-tik *azunbre*-raino. Hitz baten orde bestea bat (*nigar/negar*) hautatzen denean, gaitzetsia zein euskalkitakoa den ez jartzea erabaki da.

**2.2.3.** *b-berriz* zerrendako oharrak gabeko hitzen zerrenda banatu da. A. Iñigok zerrendan kontraesan batzuk aurkitu ditu, inoiz ordain hobera bidali baina gero horren orde proposatzen den hitza agertzen ez delako. Bere ustez beste pertsona batek inkongruentzia horiek banan-banan aztertu eta oharrak egin beharko lituzke. A. Urrutiak esan du Zuzendaritzan tratatuko dela hori. Oharrak berrikusi ondoren, falta ziren hitzak ohar-dunen artean zeudela ikusi da. A. Iñigok esan du b letran onomastika arloko kendu beharreko hitzen zerrenda P. Salabururi helaraziko diola esan du.

### 3. Eskuarteoak.

**3.1. Zorionak.** Euskaltzainburuak Patxi Altunari zorionak eman dizkio, Deustuko Unibertsitatean egin berri dioten omenaldiagatik. Era berean, Saran berriki jaso duen sariagatik, J.L. Davant-i ere zorionak eman dizkio.

**3.2. Hurrengo bilkurak.** J. Haritschelharrek hurrengo osoko bilkurak non izango diren iragarri du: maiatzekoa Bilbon, ekainekoa Larresoron eta uztailakoa Abadiñon.

**3.3. Hilberri-txostenak.** Zenduriko euskaltzain oso eta ohorezkoen hilberri-txostenak datorren maiatzeko bilkuran irakurriko direla azaldu du euskaltzainburuak. H. Knörr-ek Pedro de Yrizar-ena egingo du, X. Kintanak A. Eguzkitzarena eta Jose Ignazio Uhaldek Larry Trask-ena.

**3.4. Eusko Ikaskuntzako saria.** Urtero Eusko Ikaskuntzak Euskadiko Kutxaren diru-laguntzarekin ematen duen saria dela eta, Euskaltzaindiko Zuzendaritzak J. San Martin proposatu du hautagai.

**3.5. A. Eguzkitzaren ordeko kandidatura.** Euskaltzainburuak A. Eguzkitza zenaren lekua betetzeko jadanik heldu den lehen kandidatuaren izena esan du, baina bi

hilabeteen epea igaro arte, ez zaiola prentsari deus jakinaraziko, jendaurrean hautagai guztiak batera aurkezteko. Hortaz, euskaltzainei puntu honetaz diskrezioa eskatu die.

#### 4. Azken ordukoak.

**4.1. Euskararen berri onak.** J. Haritschelharrek atzo goizean Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian Patxi Altunak eta Esther Zulaikak Agustín Kardaberaren *Euskeraren berri onak* liburuaren edizio berria aurkeztu zutela jakinarazi du. Bertan, besteak beste, euskaltzainburua, Joxe Joan González de Txabarri diputatu nagusia, Alazne Mujika, Deustuko Unibertsitateko Giza Zientzien Fakultateko dekanordea eta Jose Antonio Rekondo, Hernaniko alkatea, izan ziren.

**4.2. P. Gartziaren liburua.** Idazkariak, halaber, maiatzaren 14an, goizeko 12etan Euskaltzaindiaren egoitzan Pruden Gartzia Liburutegiko zuzendariak bere doktorego-tesiaren liburua aurkeztuko duela iragarri du, Euskaltzaindiak Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera hitzarmen bidez argitaratua. Izena: *La España metafísica*. Gaia: Espainiar nazionalismoaren iturriak Ramón Menéndez Pidal-en obra eta pentsaeran.

**4.3. Liburu berriak.** Bukaeran Ricardo Badiola argitalpen eragileak ondoko liburuak banatu zituen: IKER 16 *La España metafísica*, Pruden Gartziarena. A. Kardaberaren *Eusqueraren berri onak* liburuaren edizio kritikoa, P. Altunak eta E. Zulaikak paratua, eta *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*, Sabino Arana Kultur Elkargoaren 2001.eko jardunaldien idazki bilduma.

Bilkura 13,15ean amaitu da.

Euskaltzainburua  
Jean Haritschelhar

Idazkaria  
Xabier Kintana